



EHULKUren aholkuak

'Aholkatu' aditzaren erregimenak



Hobe
genikek
hemendik
hanka
egitea.

Arrazoi dun.
Orpoak
erakustea
hobe.

 Norbaitek beste norbait zerbait egiTEKO aholkatu...

...DIO

- Hanka egiteko aholkatu dit adiskideak.
*Hanka egitea¹ aholkatu dit adiskideak.
- Ibiltzeko aholkatu zion sendagileak.
*Ibiltzea¹ aholkatu zion sendagileak.
- Leonardok dukeari aholkatu zion hiria berreraikitzeko, jende gutxiago sartuz, eta "gainerako" jendea hamar hiri berritan jartzeko.

¹Halamoduzkotzat jotzen dira halako esaldiak *Euskara Batuaren Eskuliburuan*. Eskuarki, NOR pertsona-objektua, eta -RA atzizkidun osagarria (*norbaitek beste norbait zerbait egitera aholkatu*) edo helburuzko perpausa eskatzen ditu *aholkatu* aditzak, 4. eta 5. diapositibetan ikusten denez.

 Norbaitek beste norbaiti zerbait **EGIN DEZAN** aholkatu...

...DIO

- Kontsumoko zuzendariak gidariei **aholkatu die** zuzenean **joan daitezzen** aseguru-konpainiara.
- Poltsa eder bat **eros zezan** aholkatu zion.
- ❖ **DIO** erregimeneko adibideotan, *aholku eman* aditz-esa-pidearen sinonimo da 'aholkatu' aditza:
 - Aholku eman zidan aitarengana itzultzeko.
 - Aholku eman zion, ordea, gertatuaz ez ziezaiola inori ezer esan.
 - ...

 Norbaitek beste norbaiti **ZERBAIT EGITERA** aholkatu...

...DU

- Peloponesori eraso egit**era** aholkatu nau Mardoniok.
- Yusgiantoro Purnomo LPEEko presidenteak erregaien gaineko tasak murriz**tera** aholkatu zituen Europako herrialdeak.
- Amak haurtzain bat hart**zera** aholkatu ninduen.



 Norbaitek beste norbait **zerbait EGIN DEZAN** aholkatu...

...DU

- Beren dohainak ongi **erabil zitzaten** aholkatu zituen San Mateok ikasleak.
- ❖ **DU** erregimeneko adibideotan, *zerbait egitera bultzatu, akuilatu, zirikatu* eta antzekoen esanahia izan dezake 'aholkatu' aditzak.

Bestalde, zenbait aditzek (*esan, agindu, ahaztu, eskatu...*) zer-nolako perpaus motak (-TZEA, -TZEN, -TZEKO) eskatzen dituzten adierazten da beste bi fitxa hauetan:

- [Perpaus osagarri jokatuabeak \(I\): -TZEA, -TZEKO, -TZEN](#)
- [Perpaus osagarri jokatuabeak \(II\)](#)



Fitxa honetan aztergai dugu zer perpaus mota (-TZEA, -TZEKO, -TZEN...) hartzen dituzten honako aditz hauek:
espero izan, behar izan, nahi izan, esan, agindu, ahaztu, eskatu...


Fitxa egiteko, *EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII (perpaus jokatuabeak)* liburua izan dugu oinarri, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak 2011n argitaratua.



Eta espero dugu...

[EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII \(PERPAUS JOKATUABEAK\)](#)

1



Fitxa honetan, perpaus osagarri jokatuabeak izango ditugu berriro aztergai [ikus, *Perpaus osagarri jokatuabeak(II)*]. Horrelako perpausen erabilera oker edo badaezpadako batzuez jardungo dugu batik bat.

Fitxa hau osatzeko, aurrekoan bezala, *EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII (perpaus jokatuabeak)* liburua izan dugu oinarri.

[EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII \(PERPAUS JOKATUABEAK\)](#)



1

Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia (2016). *Euskaltzaindiaren hiztegia: Adierak eta adibideak*. Bilbo, Donostia, Usurbil: Euskaltzaindia, Elkar, Elhuyar. [Sarean: [aholkatu](#) sarreran].

Euskaltzaindia (2018). *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)*. [Sarean: [hemen](#)].

Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. [Sarean: [aholkatu](#) sarreran].

«Ereduzko Prosa Gaur»
eta «EHUskaratuak»
corpusetatik erauzi dira
fitxa honetako adibide
gehienak.

The screenshot shows the search interface of the EHU website. At the top, there is a navigation bar with the EHU logo and the text 'UPV/EHUko Euskara Zerbitzua' and 'EHUskaratuak'. Below this, there is a search bar with the text 'Aholkatu' entered. The search results are displayed in a table with columns for 'Titza', 'Zer bilatu', 'Hitza', 'Kategoria Alorra', 'Azpialorra', and 'Emaitza'. The search results show a list of words and their corresponding categories and sub-categories. The interface is in Basque and includes various filters and options for refining the search results.